

Dimako Pelota Txapelketea udagoienean jokatu da aurten

11. orrialdea

Iraia Garcia atletaren etapa barria

Iraia Garcia konkpetizinoari itxi deutso amaiera bikainagaz: Master kategoriako 2.000 metro oztopoetan munduko bigarrena izanda. Oin, kirola beste modu baten disfrutau gura dau, oin arte ezin izan dituan kirolak praktikauz eta 2015ean abiatu eban Gu Be Bai Runners egitasmoa erdira ekarriz. 10. orrialdea



Imanol Salvador dimoztarrak liburua aurkeztuko dau hilaren 5ean

13. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

303

2018ko urri bigarrenaren 2a hamabostekaria
www.begitu.org

Ondarearen Europako Jardunaldiak hileon



Ondarea, emakumeen emaria da aurtengo leloa.

Arratian zortzi jarduera dagoz programauta. Lehenengo hamabostaldian bi eta bigarrenen beste seirak. Zeanuriko Laminategira bisitea izango da lehenengo urri bigarrenaren 6an. Hilaren 14rako Maurizia Aldeiturriagaren bizitzako etxeetatik zeharreko ibilaldia antolatu dau Gorbeialdek. 12. orrialdea

Aitor Arnaizek irabazi dau BEGITUREN Argazki Lehiaketea



AREATZA

Enpresa Mintegia eta Ekintzaile Modulua sortuko dauz Udalak

Sortu barri diran enpresak edo negozio idea bat daukienak lekua eta zerbitzuak izango ditue Areatzako Askatasun kaleko 34D zenbakian Udalak sortuko dauan Enpresa Mintegian. Eskaereagaz batera enpresa proiektua aurkeztu behar da. Enpresek Areztan euki behar dau egoitza soziala eta txikia izan behar da, bulego bategaz aurrera aterateko modukoa. 5. orrialdea

ARRATIA

Enpresa-Ideien Bigarren Lehiaketea antolatu dau AUMk

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) Arratiako Enpresa-Ideien Bigarren Lehiaketarako deialdia egin dau, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gaztedi Bizkaia programeagaz lankidetzan. Lehiaketan 18 eta 35 urte bitarteko gazteak hartu ahal izango dabe parte, eta guztira, 10.500 euro bananduko dira saritan. Lehenengo saria 6.000 eurokoa izango da, bigarren saria 3.000 eurokoa, eta 1.500 euroko beste sari bat emongo jako lehen sektoreari lotutako idearik onenari.

Enpresearen egoitza edo ekoizpen gunea, Arratian egon behar da eta 2018. urtean sortutako proiektuak be hartu leikie parte Enpresa-Ideien Lehiaketan. 5. orrialdea

aek euskara praktikoa

Kubulu AEK Euskaltegia

INAUGURAZIOA

Urriaren 6an | 12:00etan
Elexalde 10, behea. Igorre

ZATOZ!!!



Literatura txokoa

ERREKA HAIZEA

Denporalea dagoanean, etxean aterpea bilatuten dogu. Erreka haizea, zoro haizea eta, ointsu arte, andraizea be deitu izan jako hego haizeari. Izan be, epela izan arren, izakerea aldatuten deusku, eta zoratu eta barruak nahastuten jakuz sarri haizeokaz. Sonia Gonzalezek erabagi dau bere etxea zabaldu eta aterpetxu bat eskaintzea gu danori.

Ez da nobela bat, ez da poesia, ez da saiakerea. Izan be zirimola bat egin eta danak buztartu dauz. Gelaz gela, garandu dauz feminismoa, ohiturak, ametsak, azken batean, biluztu egin da eta bere etxea zelangoa dan erakutsi deusku. Abegikorra, argitsua, eta konbidauz bete. Alejandra

Pizarnick-ek, Sylvia Plath-ek, Alfonsina Stornik, eta Virginia Woolfek badaukie gela bat norberarena etxe handi horretan. Noz edo noz be, haizea isildu eta ufadak lasaitzen diranean, Soniak kalea zapaldu eta hango bizipenak dakarkuz, literatura egunerokoan aurkitu leitekela. Parkatu, ez. Egunerokoa literatura dalako. Eta ederto baten azaltzen dira hor zer dan deserria (bere ñabardura guztiakaz, izan be herrian egonda be deserrian egon leiteke bat), zer dan herriratzea, zer dan norberaren bakardade eta mina, zer dan artaburu bateri putakumea deitzearren jazo ahal diran ondorioak, zer dan azken baten, gure etxeke erosotasuna

ixtita kalera bajatu eta andra izaitea. Aldi berean, eta berea dakart hona, euskaldunok ez dogu desbardindu casa/hogar, eta etxe deitzen deutsegu biai. Suetea, dino Soniak, izan leiteke, antzekotasun handiena daukana. Baina ha-ta guzti be, ez dakit berak idatzitako habi eder honeri zein epiteto ipini eta zera dinotsuet, erreka haizea baino, baten batek uda sargaritsuen aurpegira puzka egingo baleust modukoxea da liburutxoak. Atsegina, freskoa, eta intimoa. Eta asko agintzekoa ez naz eta sarri isiltzen naz, baina eskertuko neuskizue balakoira urten eta haizeak emon dagitsuela hau irakurri bitartean.

@fantomastxiki

Sonia Gonzalez

Erreka haizea**Susa argitaletxea, 2018****192 orrialde**

TELEFONO INTERESGARRIAK

LarrialdiakGaldakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112**Guardiako Farmaziak****09:00etatik 22:00etara**
Urri bigarrenaren 1etik 7ra
Traver. Bedia. J.A. Agirrearen enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50**22:00etatik 09:00etara**

Guarrobenea. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 8tik 14raRodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09**22:00etatik 09:00etara**

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 15etik 21eraN. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atuxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18**22:00etatik 09:00etara**Melero. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.**Urte osoan****22:00etatik 09:00etara**

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak**Arantzazu:** 94 631 56 89**Artea:** 94 673 92 11**Areatza:** 94 631 71 52**Bedia:** 94 631 34 13**Dima:** 94 680 19 74**Igorre:** 94 600 74 63**Lemoa:** 94 631 31 16**Ubide:** 945 38 50 14**Zeanuri:** 94 673 91 49**Zeberio:** 94 648 20 79**Udaletxeak****Arantzazu:** 94 631 56 89**Artea:** 94 673 92 05**Areatza:** 94 673 90 10**Bedia:** 94 631 42 00**Dima:** 94 631 57 25**Igorre:** 94 631 53 84**Lemoa:** 94 631 30 05**Ubide:** 945 45 03 22**Zeanuri:** 94 673 91 46**Zeberio:** 94 648 10 79**Udalen Mankomunitatea**

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 902 543 210**Areatzako Notariotza**

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi orduerik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi orduerik

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi orduerik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heldzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heldzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arriogorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriogorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioakorik ez dago.

**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.**Telefonoa:** 94 631 73 14.**Helbide elektronikoa:** begitu@topagunea.com**Webgunea:** www.begitu.org**Zuzendaria:** Inigo Iruarrizaga.**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.**Erredakzino taldea:** Jon Urutxurtu.**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Inigo Iruarrizaga.**Publizidadea:** Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.**Banaketea:** Goizalde Badiola (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milkua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).**Tiradea:** 7.300 ale.**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.**Babesleak:**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILADEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Memelo / Mamala



Zuztar gitxi edo ganorarik ez daukanai esaten jakiezan berba iraingarrien artean memelo eta mamala dagoz (meméloa eta mámalea, ahoskatuta). Zuztarbako edo ganorabako berben antzekoa da. Batuan, inozo edo kaiku nagusi dira. Memelo gizonezkoakaz erabilten da (Lemoan, mamalo berbea be jaso dogu) eta mamala, andrazkoakaz. Amaituteko, adibide bat: "Zu lango memelarik, munduaren azken puntan bez!".

ERETXIA

Transizino energetikoa 4.0



IKER YURREBASO

Baserritarra

Bi edo hiru belaunalditan itzelezko aldaketa jasan dau gizarteak. Gure aititiamamen mundua, zuri-baltzezko ha desagertzen doa apurka-apurka, konturatu barik, eta beragaz kultura oso bat, ondutako jakintza meta handi bat eta mendeetan zehar garatutako errealidadearen ikuskera berezi bat. Bestelako mundu baten atarian gagozala esango geunke, eta oindino aurrean daukagun mundu hori zelangoa izango dan ikusteko dago. Ni neu ez naz oso positiboa, zu?

Oso denpora gitxian bioaniztasuna maila handian murriztu da, espezie asko eta asko desagertu egin dira bidean. Orduko Babelgo torreak ez dauka zer ikusirik oingoagaz, eta zientzialari batzuek esaten dabe gure biziraupena beste planeta batzuetara emigretako gaitasun harrigarri bat gartzearen barruan dagoala. Lasai, naturearen kapritxo batengaitik *homo sapiens* espeziea desagertzen bada be planeta urdinak denpora luzez iraungo dau unibersoan. Gure planetak eguzkiaren inguruan bueltaka jarraituko dau, hotzago edo beroago, baina jira eta biraka segiduko dau, eta beragaz batera bizitzak, forma desbardin eta barruetan behar bada. Gauza da gizakiok oso oldarkorrak garala, erasokorrak gara geure buruagazko be, baina batez be inguratzen gaituan espazioagaz, gure inguruneagaz. Natura txikitzen gabiz, norbaitek dudan ipinten dau hori jadanik? Ura kutsatzen dogu, airea eta lurra be bai, ez?

Bai, gauza eder mordoxka bat be egin dogu, sinfonia miragarriak konposatu doguz, koadro koloretsuak margotu, polea baliotsuak asmatu, idea biribilak gauzatu doguz, ene bada, zer ez dogun egin, ilargira be ailegau gara-eta! Baina ez dakit zergaitik, beti tenkatzen dogu larregi sokea, badirudi beti gura dogula gehiago, ez garala inoz asetzen. Alde

batetik lur azpiko petrolio-boltsak agortzeaz dagoz, eta bestetik ozeanoak plastikozko boltsez bete doguz, ez al da kontraesan latza?

Mobikortasun jasangarriaren astean, Kotxerik Bako Eguna ospatu ei da. Eta zer esatea gura dozue ba nik? Oinezkoen mesedetan ibilgailuen espazioa murrizten danean hori salatze-ko sinadura bilketak antolatuten doguzala hemen. Alboko okindegira joateko be kotxea hartzean dogunean, ez dogunez 100 metro oinez egin gura autoak bata bestearen aurrean eta atzean aparkatzen doguzanean, gure bolidoan sartu bezain laster burua galtzean dogunean, zer esango deusuet ba nik...?

Transizino energetikoaz idazteko eskatu deuste, ibilgailu hibridoek, energia barriztagarriez, eta abar luze berde batez. Zergaitik? Beti gabiz ilargia seinaletan eta hatz erakuslea begiratzen dogu. Zertarako asmatu aparailu barriak ez badoguz zuztarretako akatsak gure gain hartzean, ez bagara erradikalak gure arau sozialak adosterakoan? Nire barruko indar zentrifugoak, sano mekanismo suabea daukanak, kapitalismotik eta heteropatriarkadutik aldentzeko bultzadak eragiten deustaz, eta uste dot planeteagaz batera jira eta bira elipseak marrazten segidu gura dodalako sentiduten dodala mobimentu lotsati hori. Nire ustetan alperrik da aurrerapen teknologikoen apologia egitea jazarpenean eta biolentzian oinarritzen badogu gure etorkizuna, alperrik da "auzolana" kanpaina mediatiko gisa erabiltea kompetentzia saritzen badogu gure eskoletan, alperrik da pentseta handiak garala, beste barik.

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Endaun Batzua

MONDRAGON

LUMATUTEN



UNAI SANTOS

Kabul, 2018ko
urri lehenengoa

Goizean goizetik heldu nintzan herri haretara. Egun handietako giroa arnasten zan bertan, duda barik. Kaleak jentez beteta, musika doinu alaiak bazter guztietan eta herritarrak euren erropa onenakaz jantzita. Herriko lehenengo txokoak arakatu eta gero, kalejira koloretsu bategaz topo egin eta hareri jarraitzea ebatzi neban. Parte-hartzaile guztiak poz-pez joiazan aurrera eta ni, aldiz, euren atzetik metro gitxi batzutura, festa giroan bete-betea sartuta.

Ha-ta guzti be, herriko kale nagusira heldu bezain laster, gauzak aldatzen hasi ziran. Ordu arteko inguru koloretsua ilundu egin zan; bat-batean balztu egin ziran bazterrak. Musika doinu alaien orde, txistuak nagusitu ziran eta tensio berezia zabaldu zan airean. Irribarreak amatau egin ziran irain eta mesprexuai lekua egiteko.

Ez neban ezer ulertuten: herritarrak herritarren kontra; andrazkoak andrazkoai oihuka. Gorroto begirada etenbakoak alkarrerri.

Apurka-apurka nire inguruan gertatzen zana ulertzen hasi nintzan. Orduan harridureak inpotentziari paso emon eutsan, eta inpotentziak amorrua eta lotseari. Kale nagusi amaibako ha kostata zeharkatu ondoren, nahikoa zala ebatzi neban. Herri horretatik alde egiteko momentua zan. Haserre, triste, minduta. Leku ha ez zan Kabul, ez zan ekialde hurreko herrialde atzerakoiren bat. Hala balitz errezago ulertuko neuke dana! Baina ez, Europa zaharreen nengoan. Gizarte aurreratu baten, ustez. Eta han be, zoritxarrez, tradizioak pisu larregi eukan. Tradizino madarikatua danerako atxaki eta justifikazino lez, eskubide edo logika guztien gainetik. Zezenak torturatzea edo andrazkoen genitalen ablazioa defendiduteko kapaz dan tradizino ulertezin berbera. Birritan pentsau barik alde egin neban handik, "Betiko alardea" inoen kartel hareek urrun gelditu ziran arte.

ZERTZEAN



SAIOA LARREA



BEGI TXINDORRA

Iluntzeko argi gorriaz jantzitako Zelaia etxea, zedro, urki eta kerezondo inguraturik. Agerleku xarmangarria, egun horretan teloiak eskainitakoa. Plazan, begiak zuhur eta belariak erne, eszenatokiak zer opatuko etxoten.

Iker Diezek zabaldu eutsazan gauari ateak albokearen oihartzunagaz, Musika Eskolako altxorren ahots eztsuui sarrera emonaz, *Txikitxuterik* abestuteko Mauriziaren erara, Akelarreko Juanma Labandibar lagun eukiela. Holan hasi zan kantaldia, gurean, artistetan artistenak gogoratu eta omenduz, zelan ez, Leon eta Maurizia.

Anjel Mariaezkurrenak, EITBko Oholtzan programarako zuzendu izan ohi eban formatu hau, Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Iruñan grabauta, baina egundo be ez herri txiki baten.

Arratian gura besteko artea baegoala-eta, antzeko zeozer egiteko asmoa egon da eta aurtan, holan izan da. Lekuan lekuko artista batzuk, Euskal Herriko beste bazter batzuetatik etomitakoakaz, betiko abestien bersinoak aurkeztu euskuezan.

Ibon Izak kantuz eta kontuz, mimoz aurkeztuta, Jokaldiko Juantxu Urkiaga, Bihotz Gorospe, Gontzal Mendibil, Eskean Kristoko abeslaria, Pello Artabe, Esti eta Olatzen abotsak, Iparraldeko Pantxo Carrere, Pauline eta Juliette, Juanpa Agirre abeslari nafarragaz batera eta Arantzarteko ikuskizun parebakoagaz, gau ezin ederragoa oparitu euskuen hurbildu ginanoi.

Uste baino arrakasta gehiago lortu da eta horregaitik, etorkizunera begira, beste urrats batzuk emongo dira, EITBren laguntzeagaz, Artea Kantuan-en bigarren ikuskizun bat bultzatzeko.

Maite Arrizabalaga



Argazkia: Alexander Amor.

Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarregia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bilaka
T. 94 631 50 39
Kalejitu Zerbait 100
R.P.S. 21/06

**ASESORIA
Gorbeialde**
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Titnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

ARRATIA



Arratiako Enpresa-Ideien Bigarren Lehiaketarako deialdia egin dau Arratiako Udalen Mankomunitateak

Deialdia Bizkaiko Foru Aldundiaren Gaztedi Bizkaia programeagaz lankidetzan egin dau.

Erredakzioa

Enpresa Ideien Lehiaketan 18 eta 35 urte bitarteko gazteak hartu ahal izango dabe parte, eta, guztira, 10.500 euro bananduko dira saritan. AUMen arabera, eskualdean ekintzailatza kultura sustatu, ekonomia bultzatu, eta enplegua eta aberastasuna sortzeako helburua dauka lehiaketa honek. Proiektuak aurkezteko azken eguna urri bigarrenaren 26a izango da, 14:00etan.

Lehenengo saria 6.000 eurokoa izango da, bigarren saria 3.000 eurokoa, eta 1.500 euroko beste sari bat emongo jako lehen sektoreari lotutako idearik onenari; izan be, antolatzaileen ustez, sektore hori estrategikoa da Arratian oindino be. Sariak lortzeako baldintzetako bat da enpresa-idea; hau da, enpresearen egoitza edo ekoizpen gunea, Arratian egotea, eta 2018. urtean daborduko sortu diran

proiektuak be hartu leikie parte.

Epaimahaiak, proiektuaren izakera barritzailea hartuko dau kontuan, batez be. Baita balio erantsia eukitea, edo-eta originala izatea, eta kalidadezko enplegua sortzeako dituan aukerak be. Proiektuaren garapen eta zehaztasun maila, iraunkortasuna, eta gizartean daukan eragina be izango ditu kontuan epaimahaiak bere ebaztan.

Aurreikuspenen arabera, 2018ko zemendiaren 30ean bananduko dira sariak.

Saria jasoten daben proiektuen ideak eta horreen jaubetza intelektuala Arratiako Udalen Mankomunitatearenak izango dira, eta askatasun osoz jarri ahal izango dira martxan, zuzenean edo hirugarrenen bitartez, idea aurkeztu daukan enpreseagaz edo hori barik; beti be, idea sortu daben personak hori garatzeko asmorik ez badaukie.



Igazko saridunak.

AREATZA

Areatzako Askatasun kaleko 34D zenbakian sortuko dau Udalak Enpresa Mintegia. Hau, 80 m² inguruko espazioa da eta bertan lau bulego, guztientzako eremuak eta komunak dagoz.

Enplegua sortzeako eta autoenplegua bultzatzeko Enpresa Mintegia sortuko dau Areatzako Udalak

Erredakzioa

Bertan sortu barri diran enpresak edo negozio idea bat daukienak lekua eta zerbitzuak izango ditue enpresok aurrera aterateko. Eskariak eta proiektuak urri bigarrenaren 15era arte aurkeztu daitezke udalategian.

Enpresa Mintegiaren erabil-tzaile mota bi aurreikusten dauz Udalak. Bata da sorkuntza barriko enpresak, aurreko 24 hilabeteren barruan sortutakoak. "Honeei ixten jakie bulego bat eta alokairua pagetan dabe baina hobarituta" azaldu deutso BEGITURI Idoia Ruiz zinegotziak. Prezioa 20 euro metro karratuko da, eta hobaria, lehenengo urtean %95ekoa; bigarrenaren, %50ekoa eta hirugarrenaren %25ekoa.

Beste erabil-tzaile mota da negozio idea bat daukienak baino oindino enpresarik sortu ez dabenak. Honeek, "Ekintzaila Modulu" izena daukan espazioaren zati bat edo osorik doban okupetako aukerea daukie. "Hiru edo lau persona egon daitezke hemen". Espazioa ixteaz gainera, Udalak enpresea martxan ipinteko formazioa be emon gura deutse ekintzailerari. "Ikusita nortzuk dagozan eta zeintzuk diran euren beharrak, formakuntza emon gura deutsegu eta formakuntza hori aprobetxauz, beste batzuek be, gura badabe, apuntetako posibilitadea eukiko dabe". Ekintzaileren moduluan lekua izateko, idea zelan dagoan jorratuta balorauko da alkarriketa

baten bidez.

Enpresea aurrera aterateko mintegia eta Ekintzaileren Modulu erabilten dabenai, zerbitzu batzuk be emongo deutsez Udalak: lekuaren garbiketea, internet, elektrizidadea, berogailua, alarma zerbitzua, inprimagailua eta dokumentu birringailua, hain zuzen be.

Enpresak, kanpoan plaka bat ipinteko aukerea be eukiko dabe.

Enpresa bideragarriak eta enplegu egonkorak helburu

Bulegoa adjudiketako aurkeztu daitezkezan proiektuak, enpresa barriak izateaz gainera txikiak izan behar dira. Ezin dira lantegiak izan, edo funtzionetako ura behar dabenak, bulego batez aurrera atera daitezkezan zerbitzu enpresak baino. Egoitza soziala Areatzan izan beharko dabe eta persona fisikoa baldin bada, Areatza, Arantzazu, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa, Ubide edo Zeanurin erro-

datuta egon behar da.

Udalean Ebaluzino Batzorde bat sortuko da aurkezten diran proiektuak aztertze eta kontuan izango dira bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa, barrikuntza, lanpostuak sortzea eta horreen egonkortasuna, enplegua sustatzea lehenetsia daukien kolektiboen artean, prestakuntza eta sektore estrategikoak lehenetsia. Sektore estrategikotzat jotzen dira turismoa, edadekoai lagundutako sektoreak eta gizarte bazterketa egoeran egoteko arriskuan dagozan kolektiboak gizarteratutako jarduerak.

Areatzako Udalaren eretxian Enpresa Mintegia tresna eraginkor eta erabilgarria da tokiko mailan enplegua sortzeako, autoenplegua sustatzeko eta landa eremuan enpresak sortzeako. Izan be, Enpresa Mintegiaren bitartez, enpresak finkatzen dira azpiegiturak sortuz.

Programa honez Udalak babes emon gura deutse mikroenpresari eta langile autonomoari, batez be gazteak, andrak edo epea luzean lan barik dagozanak sortutako negozio barriari, baita lan merkaduan sartzeako zailtasun bereziak dituen langileen negozioari be.



Enpresa Mintegiko bulego bat.

UBIDE

Herriko Tabernea ustiatzeko proposamenak hilaren 11ra arte aurkeztu daitezke

Erredakzioa

Ubideko Udalarena dan Herriko Tabernea, jatetxea eta etxebizitza, bost urtez alokairuan hartzeako interesa daukienak, udalategian izena emon eta proposamenak aurkeztu leikiez urri bigarrenaren

11ra arte. Herriko Tabernearen lizitazioa, taberna eta jatetxe zerbitzua emoteko da. Beheko solairuan taberna eta jatetxea dagoz eta lehenengo solairuan etxebizitza.

Etxebizitza be sartzean da lizitazioan.



BEDIA

Jaietarako buruhandia egingo dabe bediazarrak**Erredakzinoa**

Memoria kolektiboan egoan personaje bat berreskuratu eta igaz haren buruhandia egin eben herritarrak euren borondatezko lanagaz. Aurten, personajearen andrazko bersinoa egingo dabe. Buruhandia sortzeako proiektuan parte hartu gura dabenak urri bigarrenaren 15ean egingo dabe batzarra, arrastiko 18:00etan liburutegian.

Personajeak Jon Beringa dauka izena eta Bediako Zeledon moduko bat zala dino Aitor Sorriketa Bediako alkateak. Jaietan eleizako kanpandoretik udaletxeko balkoira jeisten zan eta han egoten zan jaien amaieran plazan erretzen eben arte.

Jon Beringaren sorrera ez dago argi. "Informazioa bilatzen saiatu gara baina ez dogu apenas ezer

topau. Nik uste dot orduko jai batzordeak asmatutako personajea zala" dino alkateak. Sorrera sasoi, oin dala 30 urte inguru kokatzen dau Sorriketak. "Badagoz argazki batzuk eta oin 58-60 urte dituan jentea gaztea zan orduan".

Sasoi barrietara egokituta

Personajea berreskuratu daben arren, gaurko Jon Beringaren patua oso bestelakoa izango da. Ez da izango urtero erreko daben panpina, bizitza luzeagoa eukiko dauan buruhandia baino. Gainera, personajeak bersino bi izango ditu: Jon Beringa eta Jone Beringa, gizon eta andrazko bersinoak, hain zuzen be. Gizon itxurako buruhandia igaz egin eben eta aurten andrazko itxurakoa egingo dabe, harri-kartoiagaz, Bediako baten gidaritzapeko tailerrean.



Jon Beringaren buruhandia.

BEDIA

Udalak euskera arloko irudia aukeratzeko Irudi Lehiaketea abiatu dau**Erredakzinoa**

Bediako Udalak "Gaur, bihar eta etzi euskarari eutsi" leloarentzako Irudi Lehiaketea ipini dau martxan. Irudiak urri bigarrenaren 19ra arte aurkeztu daitezke liburutegian, 16:30etik 19:30erako ordutegian bertara eroanda, edo liburutegia@bedia.biz helbidera bialduta.

Lehiaketan parte hartzeako, irudiok gehienez hiru kolore izan behar dabez eta pdf. bektorizatu formatoan aurkeztu behar dira. Gehienezko neurria 15 cm. x 15 cm.koa da. Irudi irabazlea Bediako Udalaren euskeraren arlorako leloarentzako irudia izango da eta Bediako Udalak izango dau eskusiban erabilteko eskubidea.

Epaimahaia Bediako Euskera Batzordekoak osotuko dabe. Sari banaketea, Euskerearen Egunean, abenduak 3, izango da. Irabazleak baserriko produktu naturalez osotutako otzara izango dau saritzat eta gainontzeko partaide guztiak be saritxoren bat eukiko dabe.

IGORRE

Merkatariak euren eguna hilaren 6an ospatuko dabe**Erredakzinoa**

Arratiako Merkatarien Elkarteak, AME, bere eguna ospatuko dau urri bigarrenaren 6an eta hainbat ekitaldi antolatu ditu alkarteak Igorren, herritarrakaz ospatuteko. Ekitaldi honeen bitartez, merkatariek bezeroakazko hartu-emonak eta alkarren ezagutzea sendotu gura dabez, horixe da-eta, hurreko komertzioaren bentajetako bat: hartu-emon zuzenak sortzea. Jaia Urbieta futbol zelaiaren inguruan izango da.

Umeak zein nagusiak ondo pasetako aukerea izango dabe, goizeko 10:00etatik, iluntzeko 20:00ak arte. Txu-txu tren, fanfarria, egur jolasak Zaztaparrak asti taldearen eskutik, herri kirolak eta antxinako jolasak egongo dira. Kopaua be egongo da 19:30ean, hurreraten diranentzat.

IGORRE

Kubulu Euskaltegi barriaren inaugurazio ekitaldia hilaren 6an**Erredakzinoa**

Arratiako AEKren egoitza barria, Igorreko Elexalde 10 helbidean dagoan Kubulu Euskaltegiaren inaugurazio ekitaldia urri bigarrenaren 6an, eguerdiko 12:00etan izango da.

Euskaltegi zaharretik barrira kalejira txiki batez hasiko dabe inaugurazio eguna. Behin euskaltegi barriaren, harrera-ekitaldia egingo dabe AEK-koak, aurrekua, Ibon Iza eta Igor Menikaren bertsoak eta Luis Iruarizaga Abesbatzagaz.

Ondoren ekitaldi instituzionala egongo da eta han Iñaki Urkijo AEKren Artezkaritza Kontseiluko kidea eta HABEko ordezkarien presentzia espero da. Ekitaldia amaituteko barauskarria egongo da.



ZURE ZERBITZURA

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegil
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegil

ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es

GURE BIHOTZA

- ✓ Operazio-Zentroa Bilboko Portu Autonomoan



Orreaga Urri 1987koan

Gure
ikasleak

Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre



LEMOA

HAPOn genero ikuspegia txertatzeko hiru saio egingo ditue Lemoan

Lemoako Hiri Antolakuntzako Plan Orokorrean (HAPO) herri inklusiboa egiteko helburuagaz, Udalak hiru saiotako tailerra antolatu dau Kultur Gunean. Eider Ayerdi eta Ane Alonso arkitektoen eskutik, lemoztarrak herrigintzea genero ikuspegitik landuko dabe.

Erredakzioa

Lehenengo saioa urri lehenengoaren 20an izan zan. Orduan, genero perspektibadun urigintzari hurreratzeko oinarriak azaldu ebezan arkitekto biak. Hurrengo saioan, urri bigarrenaren 4an, HAPOrako proposautako ekarpenak aztertuko dira eta hirugarrenean, 18an, alkarregaz hausnarketea egingo dabe partaideak.

Hasteko, marko teorikoa eta indarrean dagoan araudia aurkeztu ondoren, generoak urigintzan daukan eragina azaltzeari ekin eutsien Ayerdik eta Alonsok lehenengo saioan. Arkitektoen arabera, zein zeregineri emoten jakon lehentasunak baldintzatzen dau herriko diseinua. Lan produktiboa larregi baloratu da eta zaintza lana gitxiegi, eta herriak lan produktiboaren inguruan diseinatu dira. Lan produktiboaren beharrak ibilbide linealak sortzean dabez eta zaintza lanak kontutan euki ezker, ibilbideak poligonalak izaten dira, "gizarte anitz, konpleju eta aldakor" honetan gertatzen diran ibilbideak hobeto jasoz.

Densidadeak be eragina dau herriko jentearen bizi kalidadean. Izan be, jente guztiak zerbitzuak erabili ahal izateko, txalet eta familia bat edo biko etxeak ebitea komeni da, "errazoizko densidade altua" behar da-eta. "Lemoak densidade nahiko aproposa dauka. Ez dago oso sakabanatuta eta horrek lagundu egiten dau jenteak ekipamentu kolektiboak erabili dagiazan".

Herriko komertzioa, kakoa

Urigintza inklusiboan, leku guztietan erabilera desbardinatoko espazioak izateak garrantzi handia dauka. Merkatalguneak eta erabilera bakarreko espazioak oztopo dira bardintasunean oinarritutako gizarte egiteko. Mobilidade kontuetan be, oinez ibilteak, bizikletaz edo garraio publikoak erabilteak, kotxearen aurrean lehentasuna euki behar dabe.

Eta herriko komertzioaren garrantzia azpimarratu eben danon-



Lehenengo saioa irudia.

tzako herri bat egiteko. "Egunerokotasunari jagokonean, herriko komertzioan dago kakoa. Eta hori da Lemoan txartoen funtzionetan dauan gauzetako bat. Herriko komertzioak eguneroko premiak kubridu behar dabez. Kontu publiko eta ez pribadu moduan ulertu behar da". Hori dala eta, beste neurri batzuen artean, Udalak herriko komertzioa bultzatzeko kanpainen alde agertu ziran.

Andrentzako espazio seguruak eta kale-izendegia

Espazio publikoak hartu-emone tarako espazioa da, ez pasetako lekua bakarrik. Espazio honetan, andrak seguru sentidu behar dira. Segurtasuna hobetuteko, hainbat proposamen jasota dagoz Lemoan aurrezki egindako hainbat prozesutan.

Espazio publikoan indartu egin behar da andren presentzia simbolikoa, kale gehiagori andren izenak edo euren jarduerai lotutako izenak ipiniz. "Zergaitik dago herri guztietan Agirre Lehendakaria izeneko kaleren bat, eta ez, esate baterako, martiak 8 plaza bat?" itaundu eben arkitektoak.

Pobrezia feminizata dago eta andrak gatxago izaten dabe etxea eukitea. Horregaitik, HAPOak etxeen diseinuan eta etxebizitzak eskuratzeko baldintzetan eragina izan behar daua defendidu eben Ayerdik eta Alonsok.

ARRATIA

Plazerraren gaineko lau saiotako ikastaroa hasiko da hilaren 10ean

Erredakzioa

Nerea Barjolaren berbaldiagaz hasiko da Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako ikasturtea. Alcasser-eko nesken hilketak abiapuntu hartuta, hedabideak zelan sortu eta birsortuten daben terrore sexuala azalduko dau. Hori urri bigarrenaren 5ean izango da Igorreko Kultur Etxean.

Lehenengo ikastaroa be hamabostaldi honetan hasiko da. Goxatuko naiz izeneko ikastaroa izango da Isortze Formosoren eskutik. Han partaideak, plazerra, desioa eta zaintza landuko dabe sormena erabiliz. Hau da, baktaren historia afektibo-sexualari begiratzeko sormena landuko da. Hasikerako bildurrak gairatu ostean, desioaren azterketea, andren alkartasuna bultzatzeko baliabide moduan ulertzen dala azaldu dabe Jabekuntza Eskola-



tik.

Ikastaroak lau saio izango ditu. Oingo hileko atzen lau eguaztetan, hilak 10, 17, 24 eta 31n

izango dira saioak, 18:00etatik 20:30era Dimako Abaroa Aretoan. Izena emoteko epea zabalik egongo da urri bigarrenaren 3ra arte.

ARRATIA

Sanfreskuak, Garbeko Azokea eta sanfaustoak

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 4an, Asisko San Franziskoren eguna da eta hilaren 13an San Faustorena. Arratian, besteak beste, Dimako Indusin ospatuten dabe lehenengo, San Fresku jaiak, eta Arantzazun bigarrena, sanfaustoak.

Hiru egunetako jai egitaraua prestatu dabe Indusin.

Indusi (Dima)

Urri bigarrenak 4, eguna

12:00etan, mezea.

13:00etan, barauskarria.

Urri bigarrenak 5, barikua

17:00etan, Briska Txapelketea.

18:30ean, Azkora desafioa. Jon Loiola eta Tubi vs Lur Ziarrusta eta Xabier Garcia "Utxu". Ondoren herri kirolak danontzat.

19:30ean, txixi-burruntzia.

21:00etan, EinGo Kantan eta Dantzan.

22:00etan, txokolatea.

Urri bigarrenak 6, zapatua

12:30ean, Dimako Gazte Barri jantza taldearen emonaldia.

13:00etan, bertsolariak: Etahun Lekue eta Beñat Ugartetxea.

14:00etan, Baba Lapiko Lehiaketea.

17:00etan, I. Babosteko Induolinpiadak.

19:30ean, Berakatz-zopa, Tortilla eta Ogizko Tostada Lehiaketak.

21:30ean, erromeria Jainaga eta Narbaizagaz.

22:00etan, auzokoen antzerkia, *Ongi etorri errefuxiatuak*.

23:00etan, zozketea. Ondoren txokolatea eta erromeria.

Baserri produktuetako azokea eta herri kirolak Garben

Urri bigarrenaren 7an, Bizkaiko baserrietako produktuak egongo dira salgai Igorreko Garbeko Azokan. Hogeta hamar ekoizle inguruk eroango ditue azokara barazkiak, frutak, lorak, gaztaia, ogia eta artisautza produktuak. Jon Zelai harrijasotzaileak eta Utxu eta Mendieta azkolariak herri kirol erakustaldiak

egingo ditue 12:30ean.

Garbeko Azokea 1975ean sortu zan eta Bizkaiko antxinakoenetakoa da. Hasikeran, ganadu azokea zan, baina laster baserriko produktuak saltzeako azoka bihurtu zan, eta ortuariak hartu eben protagonismoa. Behin baino gehiagotan desagertzeko arriskuan egon bada be, sasoi honetako baserriko produkturik onenak jaigiroan erosteko aukerea izango da Garben sortu zanetik 43 urte bete diran honetan be.

Sanfaustoak Arantzazun

Arantzazuko herrian, sanpedroez gainera, sanfaustoak be ospatuten ditue, herriko mugetatik zeharreko ibilaldia eta herri bazkariagaz. Hilaren 12an izango da ospakizuna eta ibilaldia goizeko 09:00etan hasiko da plazatik. Eguerdian, 12:30ean, EinGo Kantan eta Dantzan taldeak jaigiroa ipiniko dau bazkalaurreko poteoan. Ondoren, herri bazkaria, 14:30ean izango da; eguraldi ona bada plazan eta txarra bada, frontoian.



ARGAZKI LEHIAKETE

Areatzako Aitor Arnaizek Peniche-n egindako argazkiak eroan dau lehen saria

Bigarren saria Rakel Aldekoa Guatemalaiko Isla de Flores-en ateratako *Iluntzea* izeneko argazkiarentzat izan da. 118 argazki aurkeztu dira lehiaketan, inozkorik gehien. Finalera heldutako 17 argazkietatik 15 dakarguz orriotara. Beste biak urri lehenengoko zenbaki bietako Begi Txindorrean agertu ziran.




Lehenengo saria: *Peniche* (Portugal), Aitor Arnaiz.



Sizilia 2, Edorta Alonso.



Txipristinetan (Girona), Xabier Arauzo.



Bigarren saria: *Iluntzea*, Rakel Aldekoa.



Nazaré (Portugal), Aitor Arnaiz.



Zeanuri, Mau Ziemkiewicz.



Peru 4, Maialen Egileor.



Euskal kosta oinez, Ariane Landa.



Salou, Meritxell Elexpuru.



Ura eta uda, Toulouse, Miren Begoña Idigoras.



Peru 8, Marian Garai.



Masai Mara (Kenia), Miren Intxaurraga.



Varadero, June Iturriaga.



Peru 7, Marian Garai.



Eta nik txoria nuen maite, Edorta Alonso.

AZKOREA



Tubik eta Loiolak, Lur Ziarrusta eta Utxuren kontrako azkora desafioa egingo dabe Indusin

Urri bigarrenaren 5ean, barikuan, arrastiko 18:30ean, Indusiko San Fresku jaietako egitarauaren barruan.

Erredakzioa

Joxe Martin Bustinza "Tubi" eta Jon Loiola lasto jasotzen txapel-dunak, Lur Ziarrusta pelotariak eta Xabier Garcia "Utxu" Lemoako azkolariak osotutako bikoteagaz neurtuko dira azkorako desafioan Indusiko jaietan. Bost kana erdiko, txanda librean izango da egin beharreko lana.

Interes handia sortuko dau duda barik desafioak, beste arlo batzuetako kirolari handiak zelan moldatzen diran azkoreagaz ikusteko. "Azkora bategaz asko edo gitxi etxean beti ibili gara eta horrek aukera batzuk emoten deuskuz holango desafioak egiteko" azaldu deutso BEGITURI Tubi Lasto Botatze eta Lasto Jasotze txapel-dun handiak. Zein bikotek irabaziko dauan ez dago argi beretzat. "Guretzat lan gogorra izango da baina ahal dana egingo dogu irabazteko" gehitu

dau Tubik. Jokoan dirurik ez da-goala, "norberaren prestigioa eta duintasuna" dagozala jokoan dino.

Danak azkora

Herri kirol erakustaldietan topo egiten dabe lau kirolariak. Jon Loiola eta Tubi lasto jasotzen ibiltzen dira eta holangoetan, gehienetan, beste herri kirolen erakustaldiak be egoten dira. Desafio hau egitea "gure arteko asunto bat izan zan" dino Tubik, Tubi eta Loiolarena, hain zuzen be.

Lemoako azkolariak eta inoz azkora egin bako Dimako pelotariak onartu egin eben desafioa eta Ziarrustak Indusiko jaietan antolatutako aukerea ikusi eban. "Eta behin fetxea ipinita, aurrera egin behar" dino Ziarrustak. Holan, pelotaria azkora entrenetan hasi da bere bikotekide azkolariagaz eta "oin momentuan irabazi ahal dogula pentsetan dot" dino.

MENDI DUATLOIA

Zeanuriko Mendi Duatloia hilaren 6an izango da

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 6an, zapatua, 16:00etan, VIII. Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuituko 5. proba jokatu da Zeanurin. Euskal Herriko txapela be jokatu da

proba horretan.

Duatloi herrikoia da eta 16 urtetik gorako edonork hartu leike parte. Bikoteka be hartu daiteke parte, erreleboka. Holan, bikoteko batek arineketa proba biak egingo ditu eta besteak bizikletako pro-

ATLETISMOA

Maila gorenean itxi deutso lehiatzeari Iraia Garciak

Iraia Garcia atletak amaiera bikaina emon deutso kirol kompetizinoari: Master kategoriako 2.000 metroko oztopo lasterketan munduko txapel-dunorde izanda, sasoi betean eta kros txapel ugari lortuta bere ibilbide luze eta oparoan.

Erredakzioa

Oin, hogetabost urtez podiumetara igoten ibili ondoren, kirola beste modu baten bizi gura dau; Gu Be Bai Runners bere proiektua sendotuten jarraitu eta beste kirol batzuetan jardun. Lehiatu barik plazer hutsagaitik.

Atletismoari agurra Munduko Txapelketan egin deutso

Beteranoen Munduko Atletismo Txapelketa Malagan izan zan urri lehenengoaren 4tik 16ra. Iraia Garciak proba bitan hartu eban parte, Master kategoriako 2.000 metroko oztopo lehiaketan urri bigarrenaren 7an eta 1.500 metroko lasterketan hurrengo aste-goienean. "Han, Joko Olinpikotan parte hartu daben hainbat kirolari profesional egozan. Ez da nire kasua, ze nik, profesionalakaz konpetidu arren, nire lana daukat Galdakaoko anbulategian, ez naz atletismotik bizi" adierazo deutso Garciak BEGITURI. Asko jota, laugarren postuan amiatutea espero eban, baina lasterketa sano ona egin eban eta podiumeko bigarren mailara igotea lortu eban.

Hasikeran lasterketa bortitza izan zala dino Garciak. Bultzaka ibili ziran atleta batzuk, ia pistatik atera arte. Baina gero dana aldatu zan. "Laugarren nengoan eta gogotsu ikusten neban neure burua. Hirugarren bueltan, buelta bi baino ez ziranean geratuten bigarrena nintzan. Hirugarrena ondoan neukan baina nik argi neukan nire

lehia lehenengo postuan joian-gaz zala". Eva Ariasek irabazi eban, segundu bi baino gitxiagoko aldeagaz. Iraia Garciak Euskadiko markea be hobetu eban bere 6:53:10 denporeagaz. "Itzela izan zan. Inoz galdetu izan baleuste zelan gurako neuke atletismoa agurtu, ezin izango neban modu hoberik imajinatu".

Hurrengo astegoienean, 1.500 metroko lasterketan 9. egin eban.

Atleta bikaina

Munduko Txapelketan amaiera bikaina ipini deutso 25 urteko ibilbide bikainari. Bere ibilbidean, Iraia Garciak, Bizkaia, Euskadi eta Espainiako Txapelketak irabazi dauz: sei bider irabazi dau Bizkaiko Kros Txapelketa, Euskadiko Kros Luzeko Txapelketa 2009an, eta 2018an, Espainiako Kros Txapelketa M35 kategorian.



Iraia Garcia.

Eta konpetizinoan ibilitako atzen urtea ikaragarria izan da. Krosean; Bizkaiko txapel-duna, Espainiako txapel-duna eta Europako bigarrena izan da. Pista estalian; Euskadiko txapel-duna 800 metro eta 3.000 metroko distantzietan; Espainiako bigarrena 3.000 metrokoan, eta hirugarrena 1.500 metrokoan; Europa mailan, hirugarrena 1.500 metroko distantzian. Ets pista zabalean, Euskadiko txapel-duna 800 metroetan, eta 3.000 metro oztopoetan; Espainiako bigarrena 800 metroetan eta 2.000 metro oztopoetan; munduko bigarrena 2.000 metro oztopoetan eta munduko bederatzigarrena 1.500 metroetan.

Etapia barria

Elite mailako atletismoa itxita, Gu Be Bai Runners (GBBR) bere egitasmoan zentretako asmoa dauka. Egitasmoa 2015ean abiatu eban, eta andrak alkarregaz galapan egitean datza. Galdakaon, lurretan, Zornotzan, Igorren eta Lemoan dagoz GBBR taldeak. Lemoa eta Igorreko Udalak lagunduten dabe eta emaitzak "itzelak" dirala dino. "Nik beti esan dot nire egitasmoa burua eta gorputza zaintzeaz arduratzen dala, ez bakarrik heziketa fisikoa egiteko. Beste andra batzuk ezetuteko aukerea emoten dau, eguneroko arazoak aitzuten lagunduten dau, eta garrantzitsuenan, andrak ahalduz landuten dau. Lan taldea egiten dogu, partideen artean talde txoak sortu dira, eritmoaren arabekoak, eta euren artean lagunduten dira. Hau ikustea oso polita da. Batez be ni kontrakora nagoalako ohituta, ze elite mailako lasterketan danak dira etsaiak".

Elite kirolean jardundutako urteak, urte politik izan dira eta esperientzia onak eta persona jatorrak ezetuteko aukerea izan dau Garciak, baina etapa barrian sartzeako irrikitan dago. "GAP eta Aquagym-en apuntau naz. Patinetan be ikasi gura dot, uger egiten hobetu, mendira joan... eta holan zerrenda luze bat, atzen 25 urteotan ezin egin izan dodazan kirolak egiteko. Hainbat ikastaro be egin gura dodaz, heziketa fisikoren arloan eta euskerearen arloan".

bea. Umeentzako mendi duatloia be egongo da, goizeko 11:00etan.

Izena probaren bezpera arte, urri bigarrenaren 5era arte, emon daiteke www.kirolprobak.com webgunean, 15 euro ordainduta bakarka parte hartzean dabenak eta 25 euro ordainduta erreleboka parte hartzean dabenak. Egunean bertan be, izena emoteko aukerea egongo da Zeanurin, 20 euro ordainduta bakarkakoak eta 30 euro ordainduta erreleboetako bikoteak.



MENDIA

Bizkaiko I. Xendazaletasun Ligako ibilaldia Zeberiotik antolatu dau Austarrik

Erredakzioa

Bizkaiko Mendi Federazioak homologautako mendi bideak ezetu arazo gura ditu eta Bizkaiko I. Xendazaletasun Ligea antolatu dau. Proiektu honetan Austarri Mendi Taldeak be hartzean dau parte.

Ligea martiaren 11n hasi zan. GR123 Lekeitio-Ondarroa ibilbidea-gaz. Guztira 11 ibilbide dira, Austarri Mendi Taldearena zortzigarrena izango da, urri bigarrenaren 7an, eta PR11 Zubialde-Zubialde ibilbidea egiteko aukerea eskaintzen dau.

Ibilbideak 16,9 kilometro ditu eta 760 metroko desnibela. Urtekerea Zeberiotik Zubialde auzunean izango da 09:00etan. Ibilbidea, Zubialde, Zeberiogana, Irumugarrieta, Argiñao, Sarasola, Ermitabarri eta Zubialde da.

Izena online emon daiteke urri bigarrenaren 4ra arte, bmf-fvm.org webgunean edo egunean bertan Zubialden 08:30etik aurrera.

FUTBOLA

Arratiak lidertzan segiduten dau

Erredakzioa

Lehenengo lau jardunaldiak jokatu ostean Arratia andrazkoen taldea lidertzan da, partidu guztiak irabazi eta gero. Atzen partidu urri lehenengoaren 29an jokatu eban etxean Oiartzun B taldearen kontra, Arratiak 4 eta 0 irabazi eban. Datorren partidu Hernani taldearen kontra jokatu dabe etxetik kanpo hilaren 6-7ko astegoienean.

Gizonezkoak

Arratia A, LemoaHarrobi eta Arratia B taldeak be hasi dabe ligea, Arratia A eta Bk partidu bat galdu eta bestea irabazi egin dabe, LemoaHarrobik ostera lehen partidu galdu eta bigarrenean bardinketea lortu eban. Arratiak Ak Padura Aren kontra jokatu dau datorren partidu hilaren 6an Urbietan 17:15ean; Arratia Bk Berriatukoren kontra egun berean 17:00etan eta LemoaHarrobik Montefuerteren kontra etxetik kanpo hilaren 7an 17:00etan.

MENDIA

Arantzazuko mugak ezetuteko ibilbidea hilaren 12an

Erredakzioa

Arantzazuko Mugari Bira urri bigarrenaren 12an izango da, San Faustojaietako egitarauaren barruan.

Ibilbidea, 9 kilometro inguruko ibilbide zirkularra izango da. Partaideak Arantzazuko plazatik abiatuko dira 09:00etan eta hiru bat orduren bueltan Arantzazuko plazan amaituko dabe bidea. Parte hartzeako ez da izenik emon behar, aitatutako egun eta orduan plazan agertutea nahikoa da. Hamaiketako be egongo da indarrak barritzuteko.

Herri bazkaria

Ibilaldiaren ostean, 14:30ean, herri bazkaria antolatu dabe Arantzazun, babajana, 10 euroko prezioan.

BOLA JOKOA

Alzustarentzat Zeanuriko Kofradien arteko Bola Txapelketea

Jon Urutxurtu

Alzustak irabazi dau 2018ko Zeanuriko Kofradien arteko Bola Txapelketea. Alzustako bolalekuan jokatu zan taldekako txapelketa hau urri lehenengoaren 29an, San Migel egunean, eta lehenengo tokia etxeok, alzustaztarrak, eskuratu eban 16 txirlo botata. Bigarren Ipiñaburu-Undurraga sailkatu zan eta hirugarren Ibarguen.

Laukote irabazlea honako bolari honek osatu eban: Asier Artarazek, Asier Ibarondok, Beñat Mendiak eta Urko Ozerinjaregik. Eskuratu eban saria: 200 euro eta afaia Kiloterdi Txokoan, Ellauri Hotelaren jatetxean.

Txapelketako bolariik gazteena Bingen Beitia 12 urteko otzerinmediztara izan zan eta zaharrena Esteban Ozerinjaregi 81 urteko altzuaztara.



Altzusta.

PELOTEA

Dimako Gabonetako Pelota Txapelketea, Udagoieneko Txapelketea izatera pasau da

Erredakzioa

Dimako Txumuluxueta Pelota Klubak antolatuten dauan Pelota Txapelketea, Gabonetatik udagoieneko pasau da eta urri bigarreneko hiru astegoienean jokatu da. Hilaren 12 eta 19an finalurrekoak eta 26an finalak, hain zuzen be. Jaialdi guztiak 18:30etik aurrera izango dira.

Aurten hiru mailatan jokatu da txapelketea. Kadete mailan, Lau t'erdian, buruz burukoa jokatu dabe; Gazte mailan, bikoteka frontoi osoan eta Nagusiak bikoteka 5aren barruan. Beraz, edade desbardineta pelotariak modalidade desbardineta jokatuten ikusteko aukerea egongo da. Pelotariak, puntako Arratiako pelotariak eta Bizkaiko "onenen-txuenak" izango dira antolakuntzearen arabera.

tuten ikusteko aukerea egongo da. Pelotariak, puntako Arratiako pelotariak eta Bizkaiko "onenen-txuenak" izango dira antolakuntzearen arabera.

Jai giroa

Pelota partiduez gainera, zozke-

tea, jana eta edana ez dira faltau eta sarrerea libre izango da. "Edozein bertaratu eta esku peloteagaz disfrutau ahal izango dau. Aprobetxau Arratian dagoan kategoria ikusteko, aukera ezin hobea daukagu Diman eta" dinoe Txumuluxueta Pelota Klubekoak.



MERKATARITZA JAIA / AZOKA

2018

URRIAREN 6an

URBIETA FUTBOL ZELAI INGURUAN

10:00etatik - 20:00etara

Txu-Txu tren

Fanfarria

Egur Jolasak

zazta purrak

19:30etan Luntxa Dohainik

Herri Kirolak eta antzineko jolasak
Nagusientzat be bai

#igorrenerosi

Euskadi, nazionala, bien común

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ELKARREKORITZA EUSKAL GOBIERNUA

DEPARTAMENTO DE TURISMO, ECONOMÍA Y COMERCIO

ONDAREA

Andrak itxitako ondarea izango da aurtengo Ondarearen Europako Jardunaldien gaia

Aurtengo Ondarearen Europako Jardunaldiak, *Ondarea, emakumeen emaria* lelopean, andrak Bizkaiaren eraikuntza kulturean daukien zeregina aztertuko dabe. Zortzi jarduera egongo dira Arratian horretarako.

Erredakzinoa

Hilaren lehenengo hamabostaldian, ibilaldi bi izango dira. Hilaren 6an, Zeanuriko Laminategietako kobazulora bisitea egongo da eta 14an, Zeberiotik Arteara Maurizia Aldeiturriagaren etxeetatik zeharrekoa.

Gainontzeko 6 jarduerak bigarren hamabostaldian izango dira.

Areatzan berbaldia eta Euskal Jaia

Urri bigarrenaren 19an, 19:00etan, andrak eta euskal kulturearen gaineko berbaldia emongo dau Iratxe Retolazak Udaletxeko Aretu Nagusian. Han, zerk ekarri deutse kulturak andrai? Zein zeregin izan dabe andrak kulturari? Zenbateroinoko ekarpena egin deutse andrak euskal kultureari? Ze leku geratu da andrentzat kulturari? Zelan garatu dira andren eta kulturearen arteko loturak? Itan horreei eta gehiagori erantzuten saiatuko dira bertaratutakoak.



Maurizia Aldeiturriaga eta Bonifazio Arandia "Fasio".

Hurrengo egunean, hilak 20, Euskal Jaia izango da. Aurtun hiru berezitasun eukiko ditu: eguna, jantza batez hasiko da Mari Kruz Gurutzeta plazan; eguerdian bertsolari saioan, andrak euskal kultureari egindako ekarpenak plazaratu dabez bertsolariak. Areatzako andren bizipenai buruzko dokumentala ikusteko aukerea be egongo da goizean zehar.

Bedian dokumentala

Andrak bizi-erakusle Bedian dokumentala proiektuak dabe urri bigarrenaren 26an, 18:00etan, liburutegian. Bizipen personalez betetako dokumental honen bitartez, andrak Bedian lehen izan eben eta gaur daukien zeregina erakutsiko da. Labayru Fundazioak egin dau bideoa eta Igone Etxebarria Labayrukoa eta

Bediako zinegotzia dago horren atzean. "Herriko hainbat jentri egin deusaguz grabazioak, ikusteko andran lekua eta egitekoa zelan joan dan aldatzen. Kontuan hartu doguz gizonetakoak eta andrazkoak, adin desbardinetaoak, eta gaiak be era askotakoak erabili doguz: etxe barruan, familia, kirola, ohiturak, lanbideak..." azaldu deutso BEGITURI Etxebarriak.

Igorren, Angel Larrearen berbaldia

Igorren, hilaren 17an, arrastiko 19:00etan andrak Arratiako gizarte tradizionalen eukien papelaren gainean egingo dau berba Angel Larrea historialariak Kultur Etxean.

Gizarteak eukan andren irudikapena ezetuteko, beste batzuen artean Eulalia Abaitua eta Felipe Manterolaren argazkiak eta Anselmo Guinea eta Aurelio Arteta pintoreen lanak aztertuko ditu. Baita Arratiako euskeran gorde edo erabili diran eta erabilten diran hainbat berba edota esamolde, andrakaz lotuta dagozanak be. "Irainak edo berba despektiboak be bai; gizarte patriarkal eta matxistaren arrasto edo isla nabarmenak diranak" dino Larreak.

Zeanurin hiru jarduera

Herriko ondare kulturala andrak zelan eregi daben ikusteko, hiru jarduera antolatu dabez Zeanurin. Lehenengoa, urri bigarrenaren 6an, Laminategieta kobazulora bisaldia izango da. Goizeko 10:00etan alkatuko dira Uribeko San Migel basilizan, kontakizun eta personaje mitologikoak ezetu gura dabezanak. San Migel ba-

selizatik abiatu eta ordubete ibili ostean Laminategieta kobara aileguko dira partaideak. Han, Bibiñe Pujana zeanurizarrak kontakizun mitologiko bat kontauko dau.

Bigarren jarduerak, Irati Urien eta Ainhoa Mendiak egindako *Akordetan naz, ahiztu ez iteko* dokumentalaren proiektzioa izango da, hilaren 19an, 19:00etan, Kultur Etxean. Mazala Andra Taldearen dokumental honetan, herriko andren historia eta bizipenak kontetan dira. Dokumentalak 1936 ezkerotik gerrearen gertakari latzak bizi izan ebezanen bizipenak jasoten ditu.

Zeanuriko hirugarren jarduerak, andra errotarien lan isila ezetuteko, Olabarriko errotara bisaldia gidatua izango da. Han, Ana Mari Pujanaren eskutik, ogibidea, bizimoduak eta errotaren gaineko kondairak eta istorioak ezetuteko aukerea egongo da. Bisaldia urri bigarrenaren 27an izango da. Partaideak Areatzako Parketxean batuko dira goizeko 10:00etan.

Zeberio-Artea

Gorbeiko Parke Naturala Maurizia Aldeiturriagaren erritmora ezetuteko proposamena egiten dabe Gorbeialdek eta Zeberio-Udalak, urri bigarrenaren 14rako. Zeberio-Udaletxeko plazan alkatuko dira partaideak 09:30ean. Ibilbideak, Maurizia koplista zeberioztar ospetsuaren pausuak jarraituteko helburua dauka. Artistearen jaiotetxean hasiko da, Zeberion, eta handik, ezkondu zan etxeraino helduko da, Arteako Eleixabeitia auzoraino, hain zuzen be. Arreatik Zeberiora autobusa egongo da.

ANTZERKIA

Tartean teatroaren obra bat Kiñu Gaztetxean



Mikel Martinez aktorea.

Erredakzinoa

Tartean teatro konpainiaren *Tabernaria: Instrukzioak botatzeko ondo bat kaña* bakarriketea Kiñu Gaztetxean izango da urri bigarrenaren 6an, iluntzeko 20:00etan. Antzezlanak, Patxo Telleriak idatzi eta zuzendu dau. Mikel Martinezek egiten ditu aktore lanak. Hogeita hamar minutuko iraupena dauka.

Antzezlanak ikusteko plazaratuak dira, 50 lagun gehienez, eta sarrerak euro biko prezioan dagoz salgai Igorreko Axular Herriko Tabernan.

Sinopsia

Tabernariak bere ohiko bezeroak biltzean ditu, kaña bat ondo botatzeko instrukzioak emoteko atxakiagaz. Baina bakarriketea aurrera joan ahala, gure tabernariak beste kontu batzuen gainean egingo dau berba: bere bildur eta desira, eta beste gai sozial batzuen gainean, hain zuzen be.

ARGAZKIGINTZEA

2019ko egutegia egiteko Argazki Lehiaketean antolatu dau Lemoako Udalak

Erredakzinoa

Argazkigintza sustatzeaz gainera, Udaleko 2019 urteko egutegirako argazkiak aukeratzeko, Udalak Lemoako VII. Argazki Lehiaketean ipini dau martxan. Parte hartzeako, urri bigarrenaren 31ra arte aurkeztu daitezke argazkiok kultura@lemoa.net helbidean.

Edonok hartu leikie parte, Lemoa gaia daukan formato horizontaleko erretratu bakarra bialduta.

Saritutako 12 argazkiak egutegian agertuko dira eta 50 euroko saria izango dabe. Gabonetan emongo da sarituen barri.

Lehiaketako oinarriak Udaleko webgunean dagoz.



LIBURUA

Pastillas para crecer como persona liburua aurkeztuko dau Imanol Salvadorrek Diman

Erredakzioa

Ez da ohikoa gure inguruan 22 urteko gazte batek garraiolari beharretik ateratea bizimodua. Eta ohikoa be ez da garraiolari batek prosa poetikako liburua argitaratzea. Baina Imanol Salvador dimoztarrari estereotipoak apurtzea gustetan jako eta *Pastillas para crecer como persona* bere lehenengo liburua-aren aurkezpena egingo dau hilaren 5ean, 19:00etan, Abaroa Aretoan.

Liburua Bartzelonako Carena argitaletxeak argitaratu dau. "Bost argitaletxetara bialdu neban liburua eta prest egon zan lehenengoari emon neutsan baiezkoa. Gero beste batzuetatik be deitu eusten, baina nik ahalik eta lasterren kaleratu gura neban. Pozik nago" dino egileak.

Pastillas para crecer como persona saiakera moduan dago katalogata, baina Salvadorrek ez dau saiakeratzat jotzen bere liburua; "zeozer desbardina da" bere ustez. Idazleak, maitasuna, gerrea, eguneroko arazo sozialak eta beste gai askoren gaineko bere ikuspegia emoten dau liburuan, bizimodu modernoari "kritika antzeko bat" eginaz.

Liburua gaztelaniaz dago. Imanol Salvadorrek euskeraz zein gaztelaniaz idazten dauan arren, liburua aterateko beste gaztela-

niaz eukan dimoztarrak. *Pastillas* oin urtebete amaitu eban. Hurrezkerotik beste hainbat literatur lan idazten dago, batzuk euskeraz eta beste batzuk gaztelaniaz.

Treanean librete bategaz

Sukaldaritzako ikasketak ditu Salvadorrek eta gitarrea be jotzen dau. Arlo desbardineta jarduten dau sormen gosea asetzeko. Aurkeztuko dauan liburua Portugalera trenez joian baten sortu zala dino. "Hamabi ordu ziran eta eroan nebazan librete bat eta boligrafo bat. Hasi nintzan idazten eta idazten, eta esan neban: ez dago txarto". Segidu egin eban eta urtebete t'erdí ingururen ostean jaio zan liburu hau.



Imanol Salvador.

ZINEKLUBA

Carla Simon-en *Estiu 1993* pelikuleagaz hasiko da denporaldia Igorren

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 4an, iluntzeko 20:00etan izango da Igorreko Lasarte Aretoan. Igorreko Zineklubak hilean behin, eguenetan, eskaintzen dau aukeratutako pelikula bat. Hurrengoa zemendia-aren 8an izango da.

Carla Simon (Bartzelona, 1986) zuzendariaren lehenengo filma da *Estiu 1993*. Carla Simon guraso

barik geratu zan 6 urte eukazanean eta bere izeko-osabagaz eta lehen-



gusu bategaz joan zan biziten. Esperientzia honetan oinarritzen da zineklubak dakarren filma.

Izan be, pelikuleak Frida 6 urteko neskatoren istorioa kontetan dau. Frida gurasoak galdu barri ditu eta 1993ko udea da adopzino familia barriagaz pasauko dauan bere bizitzako lehenengo udea. Bere hurreko ingurutik urrun, landa eremuan, bere bizitza barrira egokitu beharko da.

LIBURUA

Naia detektibearen beste istorio bat

Erredakzioa

Alvaro Rabelli idazle zeanuriztarrak Naia detektibearen beste istorio bat argitaratu dau Elkar argitaletxearen eskutik, *Naia eta eskultore itsua* izenekoa hain zuzen. Liburuxka hau Arian irakurgaien bildumarako da, eta, batez be, oinarriak euskera baino ez daukien irakurleentzat zuzenduta dago. Nobela laburra eta erreza da. Gainera, bildumako enparauko liburu guztiak lez, honek be istorioa entzuteko CDa, atalez atal lantzeko ariketak eta berbategia dakar. Aurrekoetan moduan, marrazkiak

Pedro J. Colomborenak dira. Berrez, ez da istorio barri-barria, egile berak aurrezdik kaleratutako beste argitalpen baten moldapena baino.

Liburuaren nondik norakoa zera da: kaleko prostituta batzuk hilda agertu dira kamino bazterretan. Heriotza horreen atzean pertsonen trafiko deitoragarria eta aberastasunaren paradisua topau ez daben etorkinen bizimodu latza dagoz. Baina heriotza horreetan zeozer gehiago be ostenduten da, zeozer ilun eta ankerra, Andre de Toth zuzendariaren *House of wax* (1953) filmean lez. Naia detektibe gazteak eta bere laguntzai-

le Margotek argitu beharko dabe.



DUNBA

STEAM barrikuntza proiektua institutuan

Arratia BHI ikastetxean ikasturte honetarako STEAM (Science Technology Engineering, Arts and Mathematics) proiektua onartu deuskue. Hori dala eta, 3D inprimagailua eukiko dogu erabilgarri teknologiako tailerlean.

Arratia BHI

Oin bost urte robot bi erosi ziran eta handik hona IKT eta Teknologia irakasgaietan erabili izan dira, bai DBHn, bai Batxilergoan. Honezaz gainera, 2017-2018 ikasturtean Batxilergo I. mailako

ikasleak robotika landu eban. Arduino nano mikrokontrolagailua eta Scratch erabili eban, 6 robot eregi eta programetako. Ikasturte honetan 3D inprimagailua erabili eta robotikan sakonduteko asmoa daukagu.

Proiektu honetan, teknologia

barrien erabilera zabaldu gura deutsagu hezkuntza komunitateari. Gainera, STEAM proiektuagaz artea be landuko dogu DBH3. mailan ukelele bana eginez. Teknologia ikasgaietan montauko dabe, Plastikako, Ikusizko eta Iku-sentzunezko Hezkuntzako ikasgaietan margoztu eta apaindu eta, azkenik, Musika ikasgaietan jotzen

ikasiko dabe.

Honezaz gainera, esan beharra dago, STEAM metodoa talde lanean oinarrituten dala eta metodologia honek berebiziko garrantzia daukala ikasketa prozesuan. Jakina, taldeak sortuterako orduan genero ikuspegia garrantzitsua da eta baita beste-lako ezaugarriak be: erraza edo



Institutuko ikasleak robotagaz.



etnia, erlijioa, pertsonaren sexu aukerea, ikasle bakoitzaren gaitasunak... Honek, hartu-emon natural eta osasuntsuak bultzatuteko aukerea emongo deusku.

Amaituteko, proiektuaren zabaldundeari be garrantzia emon gura deutsagu. Holan, institutuko webgunean argitaratuko da eta bertan proiektuaren inguruko barriak ipiniko dira (bideoak, tutorialak, 3D gailuen erabilera...). Gainera, 3D gailuak eskuragarri egotea da asmoa edozein ikasgaietan.

AGENDEA

URRI BIGARRENAK 2 AREATZA

2018ko Musik & Beer jaialdian Martin Murok zuzenean egindako marrazkien erakusketea Bixer tabernan.

Xake ikastaroetarako izena emon daiteke 630 892 721 telefonora deitu edo whatsapp bat bialduta edo xakebiziareatza@gmail.com helbidera idatzita.

Biaje koadernoak egiteko hastapen ikastaroa Martin Muroren eskutik hilaren 6an. Izena 617 332 691 telefonon emon.

ARRATIA

Hilaren 26ra arte, Arratiako Enpresa-Ideien Bigarren Lehiaketarako proiektuak aurkeztu daitezke AUMen.

BEDIA

Hilaren 19ra arte, Euskeraren aldeko leloarentzako Irudien Lehiaketan irudiak aurkezteko epea. Liburutegian edo liburutegia@bedia.biz helbidean.

IGORRE

Yoga ikastaroak Kiñu Gazteboxen. Astelehenerik eguenera 19:00etan; martitzen eta eguenera 09:15ean. Izena emon 652 766 499 telefonon.

LEMOA

Hilaren 31ra arte, Lemoako VII. Argazki Lehiaketan argazkiak aurkezteko epea.

ZEBERIO

Helduentzako Gorputz Heziketa eta Hipopresiboak eta Pilates ikastaroetan izena emon daiteke udaletxean plazak bete arte.

URRI BIGARRENAK 4 AREATZA

18:00etan, AKKB antolatuta, *West Side Story* pelikulea Bilboko Orkestra Sinfonikoak zuzenean musikautu ikusteko Euskaldunara urtekera.

ARTEA

Mikel Deuna Jubiladu eta Pentsionisten alkarreak antolatutako Aranda de Duero biajerako izena emoteko atzen eguna.

DIMA

Indusiko jaiak. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.

IGORRE

20:00etan, zinekluba *Estiu 1993* (Carla Simon, 2017). Lasarte Aretoan.

LEMOA

18:30ean, *Lemoa herri anitza*. HAPO. Elizondoko Kultur Gunean.

ZEANURI

18:30ean, Gorbeia Jubiladu eta Pentsionisten alkarreak antolatuta, Inma Ansotegi abogaduaren berbaldia oinordetza, testamentu eta ezgaitasunen gainean. 2015ean indarrean sartutako legea, alargunen egoera, testamentuak egin ala ez eta zelan eta persona batek ezin dituanen ondasunak antolatu familiak zelan jokatu aztertuko dira.

ZEBERIO

Austarri Mendi Taldeak hilaren 7rako antolatutako PR-BI 11, Zubialde-Zubialde ibilbidean izena online emoteko atzen eguna, bmf-fvm.org webgunean.

URRI BIGARRENAK 5 DIMA

19:00etan, Imanol Salvador dimoztarraren *Pastillas para crecer como persona* liburuaren aurkezpena Abaroa Aretoan.

IGORRE

18:00etan, Nerea Barjolaren *Indarkeria sexuala komunikatu, sortu eta birstutu. Hedabideen*



Zinea Lasarte Aretoan

Udako etenaldiaren ostean, bueltau da zinea Lasarte Aretora. Aurreko denporaldietako ordutegi bera izango dau. Hau da, zapatuetan 22:00etan eta domeketan 17:00etan eta 19:30ean. Karteldegian dagozan pelikulak izaten dira. Domeketako arrastikoa, publiko guztientzako, umeentzako animazioa edo eta euskeraz, askotan. Iluntzekoa, zapatu gaubean eskainitakoaren bigarren pasea izaten da.

2018-2019 denporaldia, *Mamma mia! Una y otra vez* (Ol Parker, 2018) pelikuleagaz hasiko da. Filma hilaren 6 eta 7ko zapatu-domekan ikusi daiteke. Domeka arrastian, 17:00etan, *Hotel Transilvania 3, unas vacaciones monstruosas* umeentzako animazio filma proiektuak dabe.

papela berbaldia eta *Microfisica sexista del poder* liburuaren aurkezpena. Kultur Etxean.

ZEANURI

19:30ean, bertso eskolea hasiko da Kultur Etxean.

URRI BIGARRENAK 6 AREATZA

08:00etan, Lamino Kirol Klubak antolatutako mendiko urtekera. Salinillas de Bueradón-Peña de las doce (1.255 m.)-Toloño (1.277 m.)-San Gines (Labastida) eta upategi batera bisita eta bazkaria. Eleiza portikuan.

10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara, biaje koadernoak egiteko hastapen ikastaroa Martin Muroren eskutik.

IGORRE

10:00etatik 20:00etara, AMEk antolatuta, Merkataritza jaia eta azokea Urbietara zelaieraren inguruan. Txu-bu trenak, fanfarria, egur jolasak, herri kirolak eta antxinako jolasak eta kopaua.

12:00etan, AEK-ko Kubulu euskaltegi barriaren inaugurazioa.

20:00etan, Patxo Telleriaren *Tabernaria: Instrukzioak botatzeko ondo bat kaña* Gazteboxen.

22:00etan, zinea *Mamma mia! Una y otra vez* Lasarte Aretoan.

ZEANURI

Zeanuriko Mendi Duatloia. 11:00etan, umeen Mendi Duatloia; 16:00etan, Zeanuriko Mendi Duatloia, Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuituko proba eta Euskal Herriko Txapelketa.

10:00etan, Zeanuriko Udalak antolatuta, Laminategieta kobazulora bisitaldia, Uribeko San Migel baselizatik.

URRI BIGARRENAK 7 AREATZA

Gorbeia perretxikoak: familientzako parkeko perretxikoak ezetuteko ibilbide gidatua. Izena gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus helbidean edo 94 673 92 79 telefonon emon.

IGORRE

Garbeko Azokea. Ikusi 5. orrialdea. Nagusien Eguna dala eta Arratiako jubiladuen bazkaria eta jantzialdia eskolako aterpean.

17:00etan, zinea *Hotel Transilvania 3, unas vacaciones monstruosas*; 19:30ean, *Mamma mia! Una y otra vez* Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

09:00etan, Austarri Mendi Taldeak antolatuta, PR-BI 11, Zubialde-Zubialde.

URRI BIGARRENAK 8 AREATZA

Xake Bizi Areatza Klubak antolatutako xake ikastaroak hasiko dira.

ARTEA

Hilaren 28ra arte, Santiago Yanizen *Dronografias* erakusketea Arteako Kultur Etxeko Areto Nagusian. Bizkaikoa erakundearen eskutik.

BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 22ra arte, San Martin eguneko babajenerako izena emoteko epea. Liburutegian.

URRI BIGARRENAK 9

ARTEA

17:00etan, hilaren 28ko Emakumeen Mundu Martxo ekimena atontzeko *Kakorratz* tailerra plazan edo Andra gelan euria bada.

URRI BIGARRENAK 10

ARTEA

Mikel Deuna Jubiladu eta Pentsionistak antolatutako telefono mobikorra eta ordenagailua erabilteko ikastaroan izena emoteko atzen eguna. Udaletxean.

DIMA

18:00etan, Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako *Goxatuko naiz* ikastaroaren lehenengo saioa. Dimako Abaroa Aretoan.

LEMOA

Ganzabaleko bazkideak Ganzabal Mendi Taldearen Argazki Lehiaketan argazkiak aurkezteko atzen eguna.

URRI BIGARRENAK 12 ARANTZAZU

09:00etan, Arantzazuko Mugari Bira plazatik urtenda; 12:30ean, poteoa EinGo Kantan eta Dantzan taldeagaz; 14:30ean, herri bazkaria.

ARTEA

Hilaren 14ra arte, Mikel Deuna Jubiladu eta Pentsionisten alkarreak Aranda de Duero astegoiaren pasa.

DIMA

18:30ean, Dimako Udagoieneko Pelota Txapelketa finalderdiak. Kadeteak: Rekalde (Dima) vs Ibarloza (Markina); Gazteak: Kortazar (Ortuella) eta Egaña (Dima) vs Enok (Zaratamo) eta Morga (Zornotza); Nagusiak: Zapiko (Dima) eta Etxebarria (Urkuzu) vs Arabiourrutia (Abadiño) eta Arrese (Arantzazu).

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak astegoiaren urtekera Pirinioetara.

URRI BIGARRENAK 13 IGORRE

22:00etan, zinea *El rehén* Lasarte Aretoan.

URRI BIGARRENAK 14 IGORRE

17:00etan, zinea *Luis eta estralurtarrak*; 19:30ean, *El rehén* Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

09:30ean, Gorbeialdek eta Zeberio Udalak antolatuta, Gorbeia Parke Naturala Maurizio Aldeiturriagaren eritmorra. Zeberio-Artea ibilaldia.

URRI BIGARRENAK 15 BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 26ra arte, Bediako Euskaraldian parte hartzeako izena emoteko epea liburutegian.

18:00etan, Bediako buruhandia sortzeako proiektuan parte hartzeako batzarra.

URRI BIGARRENAK 16 ARTEA

17:00etan, hilaren 28ko Emakumeen Mundu Martxo ekimena atontzeko *Kakorratz* tailerra plazan edo Andra gelan euria bada.

IGORRE

17:30ean, Jubilatuen Elkarrekin antolatuta, Pilar Castroren berbaldia *Bakardadea*. Kultur Etxean.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

BASERRIA SALGAI

Baseri barriztua saltzean da Areatzan. 210 m², 3 solairutan bananduak. 4 logela, komun bi. Terrenoa etxe inguruan. Herritik oso hur. 685 717 504 (Garazi).

AUTOKARABANEA SALGAI

Mercedes Viano Marco Polo salgai. Westfalia autokarabanea. 2.2 CDI 150 zaldi, automatikoa, 2004. urtekoa 215.000 kilometro. Granatea. Interesdunak 665 706 388 telefonora deitu.

DANERIK

TRIKITIXEA EROSTEN DOT

Bigarren eskuko trikitixea erosten dot, Sol tonoa balego hobe. Interesdunak 657 707 725 telefonora deitu.

GELA ALOKAIRUAN LONDONEN

Autobusez erdigunetik 30 minututara dagoan gela alokatzen da Londonen garagarriaren 14tik urri lehenengoaren 29ra. Interesdunak idatzi ugetka2@

hotmail.com helbide elektronikora.

ETXE BILA

Arratiatik baserri-etxe bila gabizan 4 andra gara (etxerako modukoak). Alkilerrean. Interesdunak 685 707 176 zenbakira deitu.

ALOKAIRURAKO LAGUN BILA

Dimako Egiraun auzoan leku eder baten baserri dotore eta polit baten alokairua konpartiduteko pertsonen bila gabiz. 450 euro. Ortua, tenis zelaia eta bainua hartzeako aukera. Interesdunak 607 482 499 telefonora deitu.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

BEGITUKO kamiseta bana.



Maite Bernaola (Artea)
Bihotz Gorospe (Dima)

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 16


urte eta

ehundaka

lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Kisketa. 2.- Hamar erromatar.
Lastima. 3.- Arsenikoa. Inozo.
4.- Bibliako pertsonajea, Abrahamen
iloba. Birritan, hortz-kirinkaren
onomatopeia. 5.- Oxigenoa.
Gorputz atal bat. Bokala. 6.- Hotza
adierazoteko. Musika nota.
7.- Zeruko argi. Zer. 8.- Bildua. Letra
bat. 9.- Ilunabar.

GOITIK BEHERA

1.- Leku haretan. Edadeko gizon.
2.- Ogi biribil. Kide. 3.- Trumoi.
Oxigenoa. 4.- Erbioa. Meakia,
minerala. Zintzo. 5.- Bat erromatar.
Eritu. 6.- Taut. Haran. 7.- Samur.
Garoa.



Topau zazpi uri historikoren izenak.

I	D	U	R	A	T	X	A	S	O
Z	O	R	I	A	O	K	A	B	O
T	E	R	O	E	K	A	L	I	D
A	K	R	A	N	I	K	E	P	A
R	S	I	R	I	O	E	X	T	U
R	O	B	I	O	L	O	A	U	D
E	G	L	I	A	M	T	N	R	L
A	F	R	I	G	E	A	D	K	O
L	E	B	A	N	U	I	R	I	M
O	Z	K	A	R	B	O	I	U	A
B	E	S	K	O	L	E	A	D	R
A	I	S	T	A	N	B	U	L	I
N	I	G	E	R	I	K	O	A	K
I	N	O	D	A	D	G	A	B	E
A	Z	K	O	L	E	F	U	A	Z

AKI MI KO

Kailo Ren



umaan moda
seim
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

AKEITEGIA
GATY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendaketa, s/n 48530 LEZMOA, Bizkaia
Tel: 609 482 830 / 609 206 717

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87
Tel: 609-79-49-54

ZEKUTZE
JATEETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel: 94 631 52 83
zekutzejateetxea@hotmail.com

Pinturas Anaitia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten
dogu. Bizkara egin eta bukunduten dogu
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

Arratiako Enpresa Ideien II. Lehiaketa 2018

Sariak

1. saria: **6.000 €**

2. saria: **3.000 €**

Lehen sektoreari lotutako ideiarik onena:

1.500 € aurreko sarietako baten bat jaso ez badu; kasu horretan, edo lehen sektoreari lotutako proiekturik aurkezten ez bada, zenbateko hori hirugarren sari gisa emango da.

Epea **2018-10-26** (14:00)

INFORMAZIO GEHIAGO

94 631 17 17

www.ariatia.eus



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral